

FAMILIENDAKO INFORMAZIO OROKORRA

Abenduaren 17ko 538/2020 Ebazpenean aurreikusitako prozedura 2020-2021 ikasturtean ikastetxean matrikulaturik ez dauden haurrei aplikatuko zaie, ordainketa konpromisoari buruz 5.1 oinarrian xedatutakoa izan ezik. Ordainketa konpromiso hori ikaspostua erreserbatzen dutenek hartu beharko dute bere gain, baldin eta ez badira bizi Haur Hezkuntzako ikastetxea kokatua dagoen udalerrri berean.

Ikaspostua eska dezakete:

- *2019an eta 2020an jaiotako haurren gurasoek edo legezko tutoreek, eta urte bat baino gutxiago duten haurrendako instalaziorik badago, 2021an jaiotakoek.*
- *Erditzeko aurreikusitako data egiaztatzen duen mediku-agiria aurkeztuta, jaiotza 2021-2022 ikasturtearen hasiera baino 16 aste lehenagorako aurreikusia duten haurren gurasoek.*

Ikastetxeetan hasteko, haurrek 16 aste beteak izanzen dituzte, edo urtebete ikasturtea hasi baino lehen baldin eta ikastetxeek urte batetik beherako haurrentzako instalaziorik ez badute.

Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, horren egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

ESKAERAK

ENTREGATZEKO EPEA: 2021ko martxoaren 1etik 15era. Tokia eta ordutegia: entitate titularrak zehaztu beharrekoa.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- a) Haurraren jaioteguna eta eskatzailearen bizilekua egiaztatzen dituen dokumentua. Jaio gabeko haurrentzat, aurreikusitako jaiotze data egiaztatzen duen txosten medikoa.
- b) NANaren, pasaportearen, atzerritarrentzako bizileku-txartelaren edo aitaren eta amaren edo legezko tutoreen nortasun agiriaren edo baliokidea den dokumentuaren fotokopia.
- d) Familiaren osaera frogatzen duen dokumentazioa:
 - Familia liburuaren fotokopia (gurasoak eta seme-alabak) edo, halakorik ez badago, antzeko agiri ofiziala osorik.
 - Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria.
 - Banantzearen edo dibortzioaren kasuan, hura ezartzen duen epai judiziala edo legez frogatzen duen dokumentua.
 - Hala badagokio, familia-unitateko edozein kideren% 33ko edo gehiagoko desgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Familia ugariaren titulua.
 - Guraso bakarreko familia-titulua
- e) Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen lan egoeraren eta/edo egoera akademikoaren frogagiriak.
 - Besteren konturako langileen kasuan, aurreinskripzioaren epea bukatzeko egunaren aurreko 30 egunean Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatean alta emanda zegoela frogatzen duen agiria.
 - Norberaren konturako langileen lan egoera frogatzeko, aurreinskripzioa bukatzeko egunaren aurreko 30 egunean mutualitate orokorrean edo Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean eta jarduera ekonomikoen zergan altan zegoela frogatzen duten agiriak beharko dira.
 - Langabezia egonez gero, enplegu-eskaerako txartela.
 - Eszedentzia egonez gero hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztu behar da. Lan egoera aktibotzat hartzeko, idatziz zehaztu beharko da lanera itzuliko dela ikasturtea hasi ondoko hilabete eta erdi baino lehen.

- Eskaera aurkezteko unean ikasten arituz gero, matrikularen frogagiria, ikasturteko egutegia eta ordutegia aurkeztuko dira.
- Hala badagokio, familia-unitateko kideren bat ezintasun iraunkorreko edo baliaezintasun handiko pentsioa aitortuta duen Gizarte Segurantzako pentsioduna dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

f) Errenta mailak frogatzeko agiriak.

- Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren fotokopia. Aitorpena egitera behartuta ez badaude, dagokion dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, edo, azken buruan, errenten edo diru-sarreraren zintzura aitortpena eta/edo ikastetxearen titularraren den toki erakundeak familiaren 2019ko diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak, edo 2020ko diru-sarrei dagozkienak, onarpen-prozesua 2021ko ekainaren 30a baino geroagoa bada.

g) Aitaren, amaren edo legezko tutoreen bizitokia edo lantokia eragin-eremu geografikoan dagoela frogatzen duen dokumentua.

- Erroldaren ziurtagiria, udalak emana, haurra eta aita edo/eta ama edo haurraren legezko tutoreak 2021ko urtarrilaren 1a baino lehen udalerrian erroldatuta daudela jasotzen duena, edo, lanagatik edo haurrarekin bizi den gurasoari dagozkion beste arrazoi justifikatu batzuk direla eta, udalerrira horretara bizitzera aldatu diren egunekoak.
- Jaio gabeko haurren kasuan, haurraren aitaren eta/edo amaren edo legezko tutoreen erroldaren ziurtagiria.
- Zaintza eta jagoletza dituen aitaren, amaren edo legezko tutorearen lantokia zein den frogatzen duen agiria.
- Bizilekua aldatzea aurrez ikusi bada, etxebizitza ikasturtea hasi baino lehen emanen dela frogatzen duen agiria baloratu da. Kasu horretan, gaur egungo bizilekua zein den adieraziko da jakinarazpenetarako, eta bizileku berria, berriz, baremazioa egiteko.
- Idatzizko konpromisoa, jasotzen duena bizilekuko udalak edo familiak berak ordainduko duela titularraren den udalari dagokion moduluen portzentajea.

h) Sarbide zuzenerako baldintza bereziak betetzen direla frogatzen duen agiria:

- Haurraren desgaitasuna kalifikatzen duen ziurtagiria edo haurraren mendekotasun handia (III. gradua) aitortzen duen egiaztapena eta/edo profesional batek egindako txostena, zeinetan deskribatzen diren hezkuntza premia berariazkoak ekar ditzaketean ezaugarriak.

i) Beste edozein egoera berezi baloratzeko frogagiriak. Medikuen, psikologoaren, gizarte langilearen edo zerbitzu espezializatu ofizialen txostena aurkeztu beharko da inguruabar hori frogatzeko.

ZERRENDAK ARGITARATZEA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2021ko maiatzaren 10ean. Tokia: ikastetxearen eta erakunde titularraren iragarki-taulan.

ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA: 2021ko maiatzaren 10etik 14ra. Tokia: zentroaren erakunde titularraren.

Hautapen Batzordeari zuzenduko zaizkio, behin-behineko zerrendetan agertutako puntuazioa berrikusteko zergatik eskatzen den azalduz. Ez da inolaz ere onartuko eskaerak aurkezteko epean aurkeztu ez den dokumentazio berririk, non ez den aurkeztu akatsak zuzentzeko, hasieran aurkeztutako dokumentazioa falta den moduan.

BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2021ko maiatzaren 24ean. Tokia: entitate titularrak zehaztu beharrekoa

MATRIKULA

MATRIKULA FORMALIZATZEA: 2021ko maiatzaren 24tik 28ra. Tokia: erakunde titularrak zehazten duena

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako kartillaren edo txartelaren fotokopia.
- Matrikulan ezarritako kuota ordaindu izanaren egiaztatzea.
- Beste herri batean bizi diren haurren kasuan, udalari dagokion moduluaren ehunekoaren finantzaketaren frogagiria. Finantzaketa hori bizitokia duten herriko udalaren edo familiarren beraren kargura izan da.
- 2020ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenaren fotokopia, aitarena eta amarena edo legezko tutoreak. Azterketa egitera behartuta ez badaude, dagokion dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, edo, azken buruan, 2020ko errenten eta diru-sarreraren zinpeko aitortpena eta/edo ikastetxearen titularrak urte horretako familiarren diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak. Dokumentu hau 2021eko ekainaren 30era arte aurkez daiteke.
- Ordainagiriak helbideratzeko banku entitateko kontu-zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituenak.
- Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.

OHARRAK ETA DATUAK EGIAZTATZEA

- Matrikula egiteko, beharrezkoa da haurrak 16 aste beteak izatea ikasturtea hasten denean, edo 12 hilabete, urte batetik beherako haurrentzako instalaziorik ez duten ikastetxeen kasuan.
- Ezarritako epean matrikularik egiten ez bada, ikaspostuari uko egin zaiola ulertuko da, eta beste bati esleituko zaio itxaron-zerrendako hurrenkerari jarraikiz.
- Eskatutako aukeretak batean matrikula egiteak berekin ekarriko du ikastetxe bereko beste aukerei edo herri bereko beste zeinahi ikastetxetako aukerei uko egitea, ikastetxearen titularra den toki entitateak hala ezartzen duen udalerrietan.
- Alegatzen den egoerari buruzko frogagiriak aurkezten ez badira, zero puntuazioa emanen da onarpen baremoan dagokion atalean.
- Egiaztatzen bada eskabidean edo erantsitako agirietan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla, hango puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko da.
- Hautapen Batzordeak noiznahi eska dezake interesdunek aurkeztutako dokumentazioaren akats formalak zuzentzeko.

TARIFAK

Tarifak aplikatuko dira 2021-2022 ikasturterako tarifak arautzen dituen Hezkuntza Departamentuko araudian ezarritakoarekin bat.

BAREMOA

- A) Familia-unitatea, puntuazio metagarria gehienez: 15 puntu.
- Deialdi berean bi seme-alabarentzat edo gehiagorentzat ikaspostua eskatzen bada ikastetxe berean (ikaspostuaren erreserba eta jaio gabeendako eskaerak barne), 15 puntu.
 - Familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun egoeran daudenak: 5 puntu
 - Familia ugariak, 5 puntu
 - Familia unitateko kideren batek %33ko edo gehiagoko desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoa badu, behar bezala aitortua: 4 puntu.
 - 6 urtetik beherako bi seme edo alaba edo gehiago dituzten familien kasuan: puntu bat haur bakoitzeko.

B) Gurasoen edo legezko tutoreen lan eta gizarte egoera edo egoera akademikoa: 20 puntu

a) Familia orokorrak

Guraso berak bi egoera posible baditu, horietako bat bakarrik hartuko da kontuan, puntuaziorik handiena duena.

- Gizarte Segurantzari lanaldi osoan edo partzialean alta eman duen legezko guraso edo tutore bakoitzeko, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari den guraso edo legezko tutore bakoitzeko, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoen guraso edo tutore bakoitzeko: 10 puntu

- Lana bilatzen ari den guraso edo legezko tutore bakoitzeko: 5 puntu.

b) Familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun egoeran daudenak

- Gizarte Segurantzari lanaldi osoan edo partzialean alta eman duen gurasoa, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoena: 20 puntu.

- Lana bilatzen ari den gurasoa: 15 puntu.

d) Zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoa, guraso bakarreko familia edo guraso bakarreko familia egoeran dagoena izan gabe.

- Gizarte Segurantzari lanaldi osoan edo partzialean alta eman duen gurasoa, edo behar bezala justifikatutako lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari dena, edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan dagoena: 20 puntu.

- Lana bilatzen ari den gurasoa: 15 puntu.

D) Per capita errenta: 15 puntu, gehienez.

Per capita errenta (€)	Puntuak
> 15.000	1,5
12.400,01 - 15.000	3
10.700,01 - 12.400	4,5
9.300,01 - 10.700	6
7.980,01 - 9.300	7,5
6.650,01 - 7.980	9
5.500,01 - 6.650	10,5
4.500,01 - 5.500	12
3.350,01 - 4.500	13,5
< 3.350,01	15

E) Eraginpeko eremu geografikoa; gehienez ere: 20 puntu

- Haurra, aita, ama eta/edo legezko tutoreak 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen errolatuta egoteagatik, plaza eskatzen den ikastetxeko udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoaren barruan dagoen udalerrri batean (horri buruzko akordioa egin duten udalentzat): 20 puntu.
- Aitak, amak edo legezko tutoreak, plaza eskatzen den ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan lan egiteagatik: 8 puntu.
- Guraso edo legezko tutoreak entitate titularren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe batean lan egiteagatik: 5 puntu.

F) Beste irizpide batzuk. Hautapen Batzordeak beste behar larri batzuk, pertsonalak, familiakoak edo sozialak, behar bezala frogatuak eta aurreko ataletan bildu gabeak, hartzen ahal ditu kontuan: 10 puntu, gehienez ere.

G) Puntu-berdinketak ebaztea. Baremoa aplikatuta, adin talde bakoitzerako eskaintzen den azken ikaspostuan berdinketa gertatuz gero, egoera ebazteko irizpide hauek aplikatuko dira, bata bestearen ondoren:

- Ikastetxean anai-arrebak dituzten haurrak
- Familia-unitatearen per capita errenta txikiena
- Berdinketak jarraituz gero, Hautapen Batzordeak ebatziko du zozketa baten bitartez.